

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

3609 *Hutsen eta erraten zuzenketa, honako errege lege-dekretu honena: 5/2013 Errege Lege Dekretua, martxoaren 15ekoa, langile zaharrenen lan-bizitzaren jarraipenaren aldeko neurriak eta zahartze aktiboa sustatzeko neurriak ezartzekoa.*

Hutsak eta erratak aurkitu dira langile zaharrenen lan-bizitzaren jarraipenaren aldeko neurriak eta zahartze aktiboa sustatzeko neurriak ezartzeko martxoaren 15eko 5/2013 Errege Lege Dekretuaren euskarazko bertsioan. Errege lege-dekretu hori Estatuko Aldizkari Ofizialaren 2013ko martxoaren 16ko alean argitaratu zen, 65. zenbakikoan, eta, honen bidez, honako zuzenketa hauek egiten ditugu:

12. orrialdean, 7. artikuluaen Bat paragrafoan, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Gizarte Segurantzako Lege Orokorraren testu bategineko 166.2.a) artikuluaen lehen lerrokadan ageri den taula –erretiro partziala hartzeko adinari buruzkoa– honako honekin ordeztu behar da:

Gertaera eragilearen urtea	Gertaera eragilearen unean kotizatutako aldien arabera eskatutako adina		Gertaera eragilearen unean 33 urte kotizatuta edukita eskatutako adina
2013	61 eta 1 hilabete	33 urte eta 3 hilabete edo gehiago	61 eta 2 hilabete
2014	61 eta 2 hilabete	33 urte eta 6 hilabete edo gehiago	61 eta 4 hilabete
2015	61 eta 3 hilabete	33 urte eta 9 hilabete edo gehiago	61 eta 6 hilabete
2016	61 eta 4 hilabete	34 urte edo gehiago	61 eta 8 hilabete
2017	61 eta 5 hilabete	34 urte eta 3 hilabete edo gehiago	61 eta 10 hilabete
2018	61 eta 6 hilabete	34 urte eta 6 hilabete edo gehiago	62 urte
2019	61 eta 8 hilabete	34 urte eta 9 hilabete edo gehiago	62 eta 4 hilabete
2020	61 eta 10 hilabete	35 urte edo gehiago	62 eta 8 hilabete
2021	62 urte	35 urte eta 3 hilabete edo gehiago	63 urte
2022	62 eta 2 hilabete	35 urte eta 6 hilabete edo gehiago	63 eta 4 hilabete
2023	62 eta 4 hilabete	35 urte eta 9 hilabete edo gehiago	63 eta 8 hilabete
2024	62 eta 6 hilabete	36 urte edo gehiago	64 urte
2025	62 eta 8 hilabete	36 urte eta 3 hilabete edo gehiago	64 eta 4 hilabete
2026	62 eta 10 hilabete	36 urte eta 3 hilabete edo gehiago	64 eta 8 hilabete
2027 eta hurrengoak	63 urte	36 urte eta 6 hilabete	65 urte

15. orrialdean, 10. artikuluan, Gizarte Segurantza eguneratzeko, egokitzeko eta modernizatzeko abuztuaren 1eko 27/2011 Legearen hamaseigarren xedapen gehigarriari emandako idazketan, 1.b) paragrafoaren bigarren lerrokadaren bosgarren eta seigarren lerroetan, hau dioen lekuan: «... kaleratze kolektiboaren prozedura hasi baino hiru urte lehenago edo ondorengo urtean...», hauxe esan behar du: «...kaleratze kolektiboaren prozedura hasi baino hiru urte lehenago, 2011ko apirilaren 27ko mugarekin, edo ondorengo urtean...».

18. orrialdean, lehen xedapen gehigarriaren laugarren lerroan, hau dion lekuan: «... lege hau indarrean jarri ondoren...», hauxe esan behar du: «...errege lege-dekretu hau indarrean jarri ondoren...».

21. orrialdean, bosgarren xedapen gehigarriaren azken lerroan, hau dioen lekuan: «... lege-dekretu honen lehen kapituluaren...», hauxe esan behar du: «...errege lege-dekretu honen lehen kapituluaren...».

23. orrialdean, azken xedapenetako lehenaren Bi paragrafoan, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Gizarte Segurantzako Lege

Orokorren testu bategineko 229. artikulua azken paragrafoan, honako hau dioen lekuan: «Hartarako, langabeziagatiko prestazioen ordainketa bertan behera utzi ahal izango du erakunde kudeatzaileak...», hauxe esan behar du: «Erakunde kudeatzaileak langabeziagatiko prestazioen ordainketa bertan behera utzi ahal izango du...».

23. orrialdean, azken xedapenetako lehenaren Hiru paragrafoan, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Gizarte Segurantzako Lege Orokorren testu bategineko zortzigarren xedapen gehigarriaren 6. paragrafoan, honako hau dioen lekuan: «Aurreko paragrafoetan adierazitakoa gorabehera, 166.3 artikuluan xedatutakoa eta...», hauxe esan behar du: «Aurreko paragrafoetan adierazitakoa gorabehera, 166.3 artikuluan xedatutakoa, bigarren tartekian aurreikusitako 100eko 0,50eko murrizketari dagokionez, eta ...».

30. orrialdean, azken xedapenetako zazpigarrenaren Bost paragrafoan, irabaziak dituzten enpresek berrogeita hamar urte edo gehiagoko langileei eragiten dieten kaleratze kolektiboak egiten dituztenean egin beharreko ekarpen ekonomikoei buruzko urriaren 29ko 1484/2012 Errege Dekretuaren 5.2.b) artikuluan emandako idazketan, hau dioen lekuan: «..., baita haiek diru-sarreraren gainean duten batez besteko ehunekoa ere.», hauxe esan behar du: «..., baita irabaziek diru-sarreraren gainean duten batez besteko ehunekoa ere.».